

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Behin betiko onestea eskolako garraiorako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen aldaketa

Hasierako onespeneren iragarkia ALHAOren 131. zenbakian, 2020ko azaroaren 18koan, eman zen argitara, eta ez da aurkeztu alegaziorik aipatutako espedientearen kontra. Hortaz, osorik argitaratzen da, indarrean jar dadin.

ESKOLA GARRAIORAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

1. artikulua. Funtsak

Euskadiko toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 14.4 artikuluan xedatzen du toki erakundeek egin ahal izango dituztela toki erkidegoaren onurarako garatzen diren eta esku-men berekien, eskualdatuen edo delegatuen barruan ez dauden edozein motatako jarduerak, zerbitzuak edo prestazioak, ez baldin bada sartzen bikoiztasun kasuetan eta ez bada arriskutan jartzen erakunde osoaren ogasunaren finantza jasangarritasuna.

Udal honek beharrezkotzat jotzen du udalerrian erroldaturik dauden pertsonen derrigorrezko hezkuntza baino goragoko ikasketak egin ahal izatea goi-mailako ikastegiak dauden udalerrietan bizi diren pertsonen baldintza berdinetan.

2. artikulua. Xedea eta helburua

Dirulaguntzaren xedea da udalerrian erroldatuta dauden pertsonen derrigorrezko ikasketez harago goi mailako ikasketak egin ditzaten sustatzea.

3. artikulua. Araubide juridikoa

Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzek, oinarri hauez gainera, ondoko arau hauetan xedatutakoari jarraituko diote:

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko toki erakundeena

39/2015 Legea, urriaren 1koa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidea-renarena.

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena.

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzen Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena. Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko.

Arratzua-Ubarrundiako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra.

Aurrekontua betearazteko oinarriak.

Dirulaguntzak norgehiagoka araubidean emango dira, deialdi ireki baten bidez, aurrekontu kreditua agortu arte. Dirulaguntzak printzipio hauen arabera emango dira:

Publikotasuna, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza

Ezarrirako helburuak betetzeko eraginkortasuna

Efizientzia baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean.

Jarduera, programa, proiektu edo inguruabar berezi baterako dirulaguntza eskaera bat aurkezteak esan nahi du oinarri hauek, Arratzua-Ubarrundiako Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenantza orokorra eta azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzen orokorra, ezagutzen eta onartzen direla, baita horrelako dirulaguntzei aplikatu beharreko arau guztiak ere, bai zuzenekoak bai subsidiarioak.

4. artikulua. Aurrekontuko zuzkidura

Arratzua-Ubarrundiako Udalak ekitaldi bakoitzean aurkeztutako eskaerei erantzuteko nahikoa den kopuru bat xedatuko du, dagokion aurrekontu partidaren kontura. Ezingo da dirulaguntzarik eman ondoriozko aurrekontu esleipenik egin gabe.

5. artikulua. Hartzaileak

Udalerrian erroldatuta dauden eta ikastetxe ofizialetan derrigorrezkoak ez diren ikasketak egiten ari diren pertsonak izango dira onuradunak.

6. artikulua. Eskatzaileen betekizunak

Eskatzaileek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

- Arratzua-Ubarrundia udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez urtebeteko antzintasun-arekin. Antzintasunak eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean egon beharko du beteta.
- 27 urte baino gehiago ez izatea diruz lagundutako ikasturtearen hasiera egunean.

DBH baino goragoko ikasketak egiten ari izatea ikastegi ofizial publiko nahiz pribatuetan.

Arratzua-Ubarrundiako Udalarekiko zerga betebeharren ordainketa egunean edukitzea deialdi hau behin betiko ebatzi arte. Horretarako, zuzenbide publikoko diru sarreraren ondoriozko edozein zor hartuko da kontuan, salbu eta zorrak edo zehapenak geroratuta edo zatikatuta badaude edo gauzatzea etenda badago. Eginbehar hau tutoretza daukaten pertsoneri ere aplikatzen zaie, adingabeak edo legez ezgaitutako pertsonen kasuan.

Dirulaguntza hau ezingo dute eskatu Duran bizi diren eta Ikasbidea ikastolan ikasketak egiten ari diren pertsonak.

7. artikulua. Diruz lagundutako ikasketak

Honako ikasketa hauek egiteko emango da garraiorako dirulaguntza:

Batxilergoa.

Erdi mailako LH.

Hauek hartzen dituen goi mailako hezkuntza:

Unibertsitate irakaskuntza

Goi mailako irakaskuntza artistikoak

Goi mailako arte plastiko eta diseinuko lanbide irakaskuntzak.

Goi mailako LH.

Goi mailako kirol irakaskuntzak.

Kanpoan geratzen dira Hizkuntza Eskoletan egiten diren ikasketak; filologia ikasketetarako garraioa, berriz, diruz lagunduko da.

Urrutiko irakaskuntzak ere kanpoan geratzen dira.

8. artikulua. Eskaerak eta agiriak

Eskaerak I. eranskinerekin eredu ofizialarekin bat etorriko dira, eta idazkera larri argi eta irakurgarri bete beharko dira. Eskaerak tutoreek sinatuko dituzte eskatzaileak adingabeak edo lege ezgaitutako pertsonak izanez gero.

Aurkezteko epea: deialdian agertzen den data.

Aurkezteko modua:

Aurrez aurre udal bulegoetan, 8:00etatik 14:00ak arteko ordutegian.

Telematikoki, Udalaren egoitza elektronikoaren bidez: www.arratzua-ubarrundia.eus (gaituta baldin badago).

Eskabideari erantsi behar zaizkion agiriak:

Ikasketak Araba barruan egiten badira:

Ikasketak egiten ari den ikastetxeko matrikularen fotokopia eta hura ordaindu izanaren egiaztagiria. Ikastegiak ez badu ematen matrikularik, ikastegi horrek egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da, zeinean adierazi beharko den deialdian aipatzen den ikasturteari dagozkion ikasketak egin direla.

Diruz laguntzen den ikasturteko urteko eskolen ordutegia:

Diru sarrera egin nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, adieraziz zein den titularra baldin eta ez bada dirulaguntzaren onuraduna.

Ikasketak Arabatik kanpo egiten badira:

Ikasketak egiten ari den ikastetxeko matrikularen fotokopia eta hura ordaindu izanaren egiaztagiria.

Diruz laguntzen den ikasturteko urteko eskola egutegia:

Garraio publikoan eginiko bidaien eskatzaileak sinatutako zerrenda, zehaztuz zein egunetan bidaiatu duen eta zer ibilbide egin duen, eta gastuen egiaztagiriak erantsi beharko ditu (fakturak, txartelak eta abar).

Zinpeko aitortpena, bidaiak ibilgailu partikularrean egin badira, eta kasu horretan baino ez.

Diru sarrera egin nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, adieraziz zein den titularra baldin eta ez bada dirulaguntzaren onuraduna.

9. artikulua. Eskaerak aztertzea eta ebaztea

Aurkeztutako agiriak osorik ez badaude, 10 eguneko epea emango zaio eskatzaileari horiek denak osatzeko. Gainera, ohartaraziko zaio ezen, epe hori igarota aurkeztu ez baditu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, betiere dagokion ebazpena eman ondoren.

Dirulaguntzak udalbatzak emango ditu, osoko bilkuran jorratu beharreko gaien informazio batzordeak proposatuta.

10. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da izan egindako gastuaren ehuneko 90 baino handiagoa. Zenbateko hauek emango dira, gehienez:

Araba barruko garraioa:

90 euro, baldin eta ikasketa zentroraino goizez edo arratsaldean joaten bada.

180 euro, baldin eta ikasketa zentroraino goizez eta arratsaldean joaten bada.

Baldin eta ordutegi mistoa izanez gero (bi horien nahaste bat), hiruko erregela aplikatuko da egokitzen den dirulaguntza kalkulatzeko.

Arabatik kanpoko garraioa. Zer garraio erabiltzen den halako dirulaguntza emango da, be-tiere kopuru hauek oinarri:

Gastuaren ehuneko 90eraino, eta gehienez 600 euro, baldin eta garraio publikoa erabiltzen bada.

150 euro, baldin eta ibilgailu pribatua erabiltzen bada.

Batzuetan garraio publikoa eta beste batzuetan ibilgailu pribatua erabiltzen bada, eskatzaileak bien artetik bat aukeratu beharko du, udalak bietatik bati baino ez diolako dirulaguntza emango.

Ikasketak Arabatik kanpo egiten badira, onuradunaren bizilekutik ikastetxea dagoen hirira-inoko bidaiak baino ez dira diruz lagunduko, ibilgailu aldaketak barnean sartzen direlarik. Ez dira kontuan izango jatorria beste toki batzuetan daukaten bidaiak.

11. artikulua. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

Deialdi honen indarrez emandako dirulaguntzak bateragarriak dira helburu bererako jasotako beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, baldin eta jasotako dirulaguntza guztien baturak ez badu zenbateko hauek baino gehiago egiten:

Arabaren egindako ikasketak:

Goizeko edo arratsaldeko ordutegia: 190 euro

Goiz eta arratsaldeko ordutegia eta mistoa: 380 euro

Arabatik kanpoko ikasketak:

Garraio publikoan: egindako gastua

Ibilgailu pribatuan: 150 euro

Eskuratutako dirulaguntzen baturak gainditzen baditu adierazi diren kopuruak, gainfinantza-ketaren zenbatekoaz gutxituko da dirulaguntza, eta onuradunak dagokion zenbatekoa itzuli beharko dio udalari.

12. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea

Dirulaguntza epe bakarrean ordainduko da, ebazpena emandakoan eta aurrekontu ekitaldia amaitu baino lehen.

13. artikulua. Laguntzen kontrola eta justifikazioa

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak (Dirulaguntzen Lege Orokorrak) 30. artikuluko 7. apartatuan xedatutakoaren arabera, eskola garraiorako dirulaguntzak emateko, eskatzaileak edo, hala dagokionean, tutoreak ez du aurkeztu beharko dirulaguntzak eman aurretik deialdian ezarritako betekizunak betetzen dituela frogatzeko ziurtapena besterik .

Hala ere, pertsona onuradunak udalari jakinarazi beharko dizkio kontzeptu honetarako eskuratzen dituen beste laguntza edo dirulaguntzak, horiek jasotzen diren unean.

Laguntzen jasotzaileei aplikatu beharreko itzulketak, zehapenak eta erantzukizunak arautzen dituen araubidea azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, eta Arratzua-Ubar-rundiako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzak ezartzen dutena izango da.

14. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea

Arau hauste eta zehapen administratiboei dagokienez, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak (Dirulaguntzen Lege Orokorrak) 52. artikuluetan eta hurrengoetan xedatutakoari eta udalak onetsitako dirulaguntzen eta laguntzen emakida arautzeko ordenantzak 14. artikuluan

ezarritakoari jarraituko zaie. Halaber, ordenantza horren 15. artikuluan agintzen denaren araberaz zehatuko dira.

15. artikulua. Legeria osagarria

Oinarri hauetan aurreikusita ez dauden alderdietan, udalak onartutako dirulaguntzen eta laguntzen kontsezioa arautzeko ordenantzan xedatutakoari, Dirulaguntzen Lege Orokorrari eta hori garatzen duen araudiari jarraituko zaie.

Guztiak jakinaren gainean egon daitezen argitaratzen da.

Dura, 2020ko abenduaren 18a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE



ESKOLA-GARRAIORAKO DIRU LAGUNTZA ESKABIDEA

IZENA ETA ABIZENAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA		NAN-AIZ-IFK	
ORDEZKARIA (IZENA ETA ABIZENAK)		NAN-AIZ-IFK	
KOMUNIKAZIOA-JAKINARAZPENA EGITEKO DATUAK			
Kalea	Zk	Solairua	Herria
Posta-Kodea	Udalerrria	Lurraldea	
Posta elektronikoa	Telefono zk.	Mugikorraren zk.	

Nori egin jakinarazpena
Nola egin jakinarazpena

Interesatua
 Posta

Ordezkarria
 Elektronikoki/

AZALTZEN DUT

Arratzua-Ubarrundiako Udalak onartutako eskola-garraiorako laguntzen deialdiaren berri izan dudala.
.....udalerriko Ikastetxeko mailan nagoela matrikulatuta.
Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, Herritarren Udal Erroldan gutxienez urtebeteko aintzinasunarekin izena emanda nagoela.
Diruz lagundutako ikasturtea hasten den egunean, 27 urte edo gutxiago ditudala.
Zentro ofizialean egiten ari naizen ikasketak DBH-koak baino goragoak direla.
Eta adierazten du:
Eskaera egin duela, eta jaso duela / ez duela jaso beste beka edo laguntzarik kontzeptu bererako. Jaso badu, zenbatekoa:..... / laguntza eman duen erakundea:.....
Ogasunarekiko eta Udalarekiko dituen zerga-betebeharrak eguneratuta dituela. Adingabeen edo tutoretzapekoen kasuan, betebeharrak hau tutoreen ardura izango da.
Eta adierazten dut, kontzeptu berarengatik, beste beka edo laguntzaren baten eskaera egin dudala BAI / EZ, erakundeari zuzenduta, eta laguntza jaso dudala BAI / EZ, eta, jaso izanez gero, kopurua honakoa izan dela:

ESKATZEN DUT

Kontuan izatea, aipatutako deialdiaren ebazpena egiterakoan, eta hala badagokio, diru-laguntza ematea.

ERANTSITAKO AGIRIAK

Araba barruko ikasketen kasuan:

- Ikastetxeko matrikularen fotokopia, eta ordaindu izanaren ziurtagiria. Zentroak ez badu matrikularik ematen, zentroak emandako ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, bertan honakoa jasota: deialdian adierazitako ikasturteari dagokion ikasketak egin direla.
- Diruz lagundutako ikasturtearen eskolen ordutegia.
- Diru sarrera egitea eskatzen den entitatearen izena eta kontuaren IBANa. Kontuaren titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada, bertan zehaztu behar da.
- Arabatik kanpoko ikasketen kasuan:
- Ikasketak egiten ari den ikastetxeko matrikularen fotokopia, eta matrikula ordaindu izanaren agiria.
- Diruz lagundutako ikasturteren urteko eskola egutegia
- Garraio publikoarekin egindako joan-etorrien zerrenda, egunak eta ibilbideak zehaztuta. Egindako egindako gastuen ziurtagiriak (txartelak, fakturak...) gehitu behar dira.
- Zinpeko adierazpena, auto pribatuaren egindako bidaiak badira bakarrik.
- Diru sarrera egitea eskatzen den entitatearen izena eta kontuaren IBANa. Kontuaren titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada, bertan zehaztu behar da.

DATA ETA SINADURA:

	DATUEN BABESA
Arduraduna	Arratzua-Ubarrundiako Udala
Helburua	Hainbat jarduera sustatzeko dirulaguntzak ematea
Legitimizazioa	Datuen tratamendua lege-betebeharrek eta/edo interesdunen baimenak legitimatzen dute.
Hartzaileak	Jasotako datuak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da bestelako lagapenik egongo, legeak hala agintzen ez badu.
Eskubideak	Interesdunak bere eskubideak gauzatu ahal izango ditu Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin (Uribea kalea 12, 01520 Durana) harremanetan, arduradun gisa. Datuen kontserbazio-modua legeak agindutakoa izango da, datuen helburuaren arabera. Datuak ez dira erabiliko erabaki automatizatuak lantzeko.

Arratzua-Ubarrundia Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia - Uribea Kalea, 12 01520 – Durana (Araba)